

«EROSKETA ARDURATSU

BATERAKO

GIDA»



ARGITALPENA ETA IDAZKETA: Setem Navarra/Nafarroa

Mercaderes 20, baxua - 31001 Iruñea

T. 948 275 720

nafarroa@setem.org - www.setem.org/navarra

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: jxmillet@gmail.com

BIBLIOGRAFIA: Brenda González de Chávez, 2017, Zure kontsumoak mundua alda dezake: Zure erabaki arduratsuen, kontzienteen eta kritikoen boterea, Bartzelona, Península argitalpenak.



aurkibidea

- 2 Zergatik egin gida hau?
- 4 Nekazaritza ekologikoa
- 5 Nola ezagutu produktu ekologiko bat?
- 6 Bidezko Merkataritza
- 7 Nola ezagutu Bidezko Merkataritzako produktu bat?

ZERGATIK EGIN GIDA HAU?

BALIO ETIKOAK, SOZIALAK, INGURUMENEOAK ETA EKONOMIKOKI JUSTUAK LOTZEN DITUZTEN ZIURTAGIRIEI BURUZKO INFORMAZIOA EMAN NAHI DIEGU KONTSUMITZAILEEI. GUTAKO HAINBESTE GALDUTA GAUDE!



KONTSUMITZAILE "ARDURATSU" BATEK BERE EROSKETAREN INPAKTU EKONOMIKOAN ETA INGURUMENEOAN PENTSATZEN DU. KONPROMISOA HARTZEN DU EROSKETA HORREK ERAGIN POSITIBOA IZAN DEZAN EKOIZPEN-KATEAN ETA INGURUMENEAN SARTUTA DAUDEN PERTSONENGAN.

ZER ESAN NAHI DU EROSKETA ARDURATSU BATEK?



ZER DA ZIURTAGIRI BAT?

ZIURTAGIRIAK JAKITERA EMATEN DU PRODUKTU HORREK BALDINTZA BATZUK BETE DITUELA ZIGILUAREN ARAUEN ARABERA EKOIZPEN-ETA/EDO ELABORAZIO-PROZESUETAN INTERESIK EZ DUEN HIRUGARREN ERAGILE BATEK EGIAZTATZEN DU.



NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

Ekoizpen ekologikoa nekazaritza kudeatzeko eta elikagaiak ekoizteko sistema orokorra da. Ingurumenarekiko errespetuaren arloko jardunbide egokiak konbinatzen ditu, biodibertsitatea eta baliabide naturalak zainduz, animalien ongizateari buruzko arau zorrotzak aplikatuz. Beraz, ekoizpen ekologikoak rol sozial bikoitza du, batetik, merkatu espezifiko bat hornitzen du, kontsumitzaileak produktu ekologikoen eskaera bati erantzuten diona, eta, bestetik, ingurumena, animalien ongizatea eta landa-garapena babesten dituzten ondasunak ematen dizkie jendeari.

NOLA EZAGUTU PRODUKTU EKOLOGIKO BAT?

Gaur egungo europar zigilua 2010ean sortu zuten. Produktuaren osagaien %95 nekazaritza ekologikotik datozela bermatzen du. Gainera, produktua zuzenean nekazari ekoizlearengandik edo nekazaritzako elikagaien eraldatzailearengandik dator.

Nafarroako Nekazal Ekoizpen Ekologikoaren Kontseiluak, CPAEN–NNPEK, garatutako ziurtagiria da. 1996. urteaz geroztik, erakunde horrek Nafarroan nekazaritza-jarduera ekologikotik eratorritako elikagaiak kontrolatu, ziurtatu eta sustatzen ditu.

Ziurtapen horiek ez dute hausten monolaborantzako nekazaritza intentsibo eta industrialaren ereduak. Plastikozko ontzirik gabeko eta toxiko produktuen nekazaritzaren aldeko apustua egiten dugu.



BIDEZKO MERKATARITZA

Nazioartean adostutako Bidezko Merkataritzaren definizioa honako hau da:

Bidezko Merkataritza elkarriketan, gardentasunean eta errespetuan oinarritutako merkataritza-sistema da, nazioarteko merkataritzan ekitate handiagoa bilatzen duena, gizarte-eta ingurumen-irizpideei arreta berezia eskainiz. Garapen jasangarriari laguntzen dio baldintza komertzial hobekak eskainiz eta ekoizle eta langile behartsuen eskubideak bermatuz, bereziki Hegoaldean.

(Bidezko Merkataritzaren Munduko Erakundea, WFTO).

NOLA EZAGUTU BIDEZKO MERKATARITZAKO PRODUKTU BAT?

BIDEZKO MERKATARITZAREN MUNDU ERAKUNDEA:

Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Elkarteak kide dela ziurtatzen du. Bidezko Merkataritzaren baldintzak betetzen dituzten erakundeei ematen zaie.



EKOIZLE TXIKIEN SINBOLOA:



Ekoizle Txikien Sinboloa ekoizpen jasangarriako, antolaketa demokratikorako, bidezko merkataritzarako eta autogestiorako ziurtapen-sistema independente baterako antolatutako ekoizle txikien arteko aliantzaren ordezkapena da. Latinoamerikako eta Karibeko Bidezko Merkataritzako Ekoizle Txikien Koordinakundeak sortu zuen, 2004an, eta ziurtapen-zigilu bakarra da oso-osorik ekoizleengandik sortua dena. Gainera, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzenerako proposamena da, hegoaldeetik iristen dena, eta ez iparraldetik inposatutakoa.

FAIRTRADE LABELLING ORGANIZATION (FLO)

Bidezko Merkataritzaren historian lehena da ziurtagiri hori; 1988an agertu zen Herbehereetan, eta kafea baino ez zen ziurtatzen. Ziurtatzen du ekoizpen- eta merkaturatze-katea bat datorrela bidezko merkataritzaren printzipioekin. Irizpide horiek merkataritza harremanetan dagoen botere desoreka, merkatuen ezegonkortasuna eta ohiko merkataritzaren bidegabekeriak zuzentzera bideratuta daude.



ECOCERT

ECOCERT nekazaritza ekologikotik datozen produktuen ziurtagiriaren espezializatutako kontrol eta ziurtaginerako erakundea da. Bidezko Merkataritzako atalak bidezko merkataritzako produktuarentzako eta produktu ekologikoarentzako audiotortza- eta ziurtagiri-zerbitzuak ematen ditu.

FAIR FOR LIFE:

A white tag with the 'fair for life' logo in orange and black text.

fair
for life

Ecocert enpresak sortua, Erantzukizun Soziala eta Bidezko Merkataritza ziurtatzeko aukera eskaintzen du ekoizpen-eragiketa

mota guztietarako, lan-baldintza onak bermatzeko konpromisoa erakutsi nahi duen ekoizpen-, prozesamendu- edo merkaturatze-eragiketa ororentzat, baztertutako langileen eta ekoizleen bizi-maila hobetuz, eta tokiko komunitateari eta ingurumena zaintzeari ekarpena eginez.

Bidezko Merkataritzako produktu askok ez dute ziurtagirik, gaitasun ekonomikoagatik (ziurtagiri bat lortzea dirua kostatzen da) edo filosofiagatik. Produktu horiek Bidezko Merkataritzaren mugimenduko erakundeek egiten dituzte, eta haien jatorria bermatzen dute. Ekoizleak ez dira zure erosketatik kanpo utzi behar, denda espezializatuetara joan behar duzu produktuak aurkitzeko. Hurbileko erosketa baten aldeko apustua egiten dugu, egungo sistemaren eragile nagusiak diren banaketa komertzial handiak saihestuz.



«EROSKETA ARDURATSU BATERAKO GIDA»

Egileak:



Finantzazioa:

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

